

2. ORDENANTZA FISKALA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

Erandioko Udalak Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga eskatuko du Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko 7/89 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

1. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

2. ARTIKULUA

Ondorengo hauek dira Zergaren zergagaiak:

1.- Bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna, direnak direla ibilgailuen mota eta kategoria.

2.- Zirkulatzeko gai den ibilgailutzat joko da dagokion erregistro publiko egokietan matrikulatua izan dena, berauetan baja ematen ez zaion bitartean. Zergaren ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo-matrikula dutenak ere zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira.

3.- Jarraikoak ez daude zerga honen kargapean:

a) Ereduaren antzintasunagatik erregistroetan baja jaso duten ibilgailuak, baina honelako izaerakoei mugatutako erakustaldi, lehiaketa edo lasterketak direla eta salbuespen gisa zirkulatzeko baimenduak izan daitezkeenak.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek herrestan eramateko 750 kg. edo gutxiagoko zama erabilgarria duten atoiak eta erdiatoiak.

III. SALBUESPENAK

3. ARTIKULUA

1.- Zergatik salbuetsita daude ondoren azalduko direnak:

a) Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Bizkaiko Lurralde Historikoko eta toki erakundeetako herritarren defentsarako edo segurtasunerako ibilgailu ofizialak.

b) Bestelako herrialdeetako ordezkari diplomatikoen, kontsul-bulegoetako kideen eta kreditatuta dauden agente diplomatikoen eta kontsul-funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialde horietako herritarrak badira, ibilgailuak kanpoaldean identifikatuta badaude eta herrialde horiek hedapen eta maila bereko elkarrekiko salbuespena eskaintzen badute.

Era berean, salbuetsiak izango dira Espainiar estatuan bulegoa edo egoitza duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta diplomazi estatutua duten bertako funtzionarioenak eta estatutu diplomatikoa duten kideenak.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun-laguntzeko ibilgailuak eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren bestelako ibilgailuak.

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. Eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta ezindu baten izenean matrikulatuta badaude.

Halaber, salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko baizik ez direnak. Salbuespen hau inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, eta aplikatu ere urrituek eurek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei aplikatuko zaie.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bakoitzari ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Atal honetan xedatutakoaren ondoretarako, hauexek hartuko dira pertsona ezindutzat:

a') %33-65 bitarteko minusbalio-gradua onartuta dutela mugitzeko gaitasuna murriztuta duten pertsonak; halakotzat joko dira minusbalio-gradua aintzaetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. Eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.

b') %65eko minusbalio-gradua edo handiagoa duten pertsonak.

f) Gidaria barne bederatzi plaza baino gehiago dituzten eta hiriko garraio publikorako diren autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak.

g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

2.- Artikulu honetako 1. ataleko e) eta g) letretan ezarritako salbuespenen onuradun izateko, interesatuek bidezko den salbuespen-eskaria egin behar dute, eta horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia azaldu behar dute. Udal administrazioak salbuespena onartu eta gero, salbuespen hori egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.

Aurreko atalean aurreikusitakoari dagokionez eta salbuespena eskatzeko, interesatuek idazkia aurkez dezakete udaletxeko Erregistro Orokorrean ondorengo agiri hauek erantsita:

a) Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. Eranskineko A letran adierazitakoaren arabera mugikortasun urritua duten pertsonen ibilgailuak direnean eta baita elbarrituaren izenean matrikulatutako eta elbarrituak berak eta ez beste inork erabiltzeko diren ibilgailuak direnean kasuan:



- X Zirkulazio baimenaren fotokopia.
- X Urritasunaren eta, behar denean, mugitu ezintasunaren ziurtagiria, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak emandakoa; ez da nahikoa izango ezintasunak baloratzeko taldeek egindako irizpen tekniko-fakultatiboa aurkeztea..
- X Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren (matrikulazio zerga) salbuespenari buruzko ziurtagiria, hala dagokionean.
- X Erandioko errolda agiria.
- X Zinpeko aitorpena, ibilgailua ezinduak eta ez beste inork erabiliko duela adieraztekoa.

Martxoaren 26ko 7/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena zuten ibilgailuek lehenagoko idazketan aurreikusitako salbuespenerako eskubidea izango dute, salbuespen hori izateko eskatutako betekizunak betetzen jarraitzen duten bitartean bederen.

b) Traktore, atoi, erdiatoi eta nekazaritzako makinaren kasuan:

- X Zirkulazio baimenaren fotokopia.
- X Ezaugarrien ziurtagiriaren fotokopia.
- X Ezinbestean ibilgailuaren titularra denaren izenean joango den Nekazaritza Ikuskaritzako Txartelaren fotokopia.
- X Erandioko errolda agiria.

Nekazaritzako traktoreak, atoiak eta erdiatoiak nekazaritzakoak ez diren gaiak edo ekoizkinak garraiatzeko erabiltzen direla egiaztatzen badu udal administrazioak, ez da bidezkoa izango traktore, atoi eta erdiatoi horiei salbuespenik aplikatzea.

Oro har, eskabidea egin eta hurrengo urtealdian izango du eragina salbuespenak eta ez du atzeraeraginik izango.

IV. HOBARIAK

4. ARTIKULUA

25 urteko edo hortik gorako antzintasuna duten ibilgailuen kasuan, kuotaren %100eko hobaria ezarri da. Fabrikatu zeneko egunetik kontatuko da ibilgailuaren antzintasuna eta fabrikazio data ezagutzen ez bada lehen aldiz matrikulatu zeneko egunetik kontatuko da edo, bestela, mota edo aldaki hori egiteari utzi zitzaion egunetik.

Atal honetako hobaria eskuratzeko ezinbesteko baldintza izango da esandako ibilgailu horiek historikotzat aitortuak izatea edo, bestela, antzinako ibilgailuen legezko elkarte bateko kide izatea.

Oro har, eskabidea egin eta hurrengo urtealdian izango du eragina hobariak eta ez du atzeraeraginik izango.



V. SUBJEKTU PASIBOA

5. ARTIKULUA

Ondorengo hauek dira zerga honen subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek 34. eta 35. artikuluetan aipatzen dituen erakundeak, zirkulazioko baimenean ibilgailua beraien izenean agertuz gero.

VI. KUOTA

6. ARTIKULUA

1.- Eranskinean azaldutako tarifa-taularen arabera eskatuko da zerga-kuota.

2.- Ibilgailu mota zehazteko, arau bidez ezarritakoari egingo zaio jaramon, eta gainera kontuan hartuko dira ondoko arauak ere:

a) Furgonetatzat hartuko dira ondoko hauek: pertsonak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo-ibilgailuak, zenbait jesarleku eta kristal kendu zaizkienak, ateen neurriak edota kokaera aldatu, eta bestelako aldaketak egin zaizkienak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu gabe. Furgonetengatik turismoak balira bezala ordainduko da Zerga, euren zerga-potentziaren arabera, ondorengo kasuetan izan ezik:

LEHENA.- Txoferra barne izanik bederatzi pertsona baino gehiago garraiatzeko baimendua bada, ibilgailuak autobus gisa ordainduko du dagokion zerga.

BIGARRENA.- 525 kg baino gehiagoko zama erabilgarria garraiatzeko baimendua bada, ibilgailuak kamioi gisa ordainduko du dagokion zerga.

b) Zerga honen ondoreetarako, motogurdiak motozikletatzat hartuko dira; beraz, duten zilindradaren arabera ordainduko da Zerga.

c) Ibilgailu artikulatuen kasuan, Zergak aldi berean eta bereiz kargatuko ditu arraste indarra duen ibilgailua eta hark herrestan daramatzen atoiak eta erdi-atoiak.

d) Duten edukieragatik matrikulatu beharrik ez duten atoi eta erdiatoinen kasuan, zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira Industriako Ordezkaritzak horren ziurtagiria ematen duenetik edo, ibilgailua zirkulatzen hasten denetik, kasuan kasukoa.

e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek garraiatu edo herrestan eramanak izan gabe bide publikoetatik zirkula dezaketen makina autopropulstatuengatik, traktoreei dagozkien tarifen arabera ordainduko dira zergak.

f) Nolanahi ere, D) letran agertzen den "traktoreak" izen orokorrak barne hartzen ditu hala kamioi traktoreak nola obra eta zerbitzuetako traktoreak.

g) Zaldipotentzia fiskala zaldi fiskaletan adierazten da eta Ibilgailuen Arautegi Orokorren V. eranskinean xedatuaren arabera ezarriko da.

VII. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

7. ARTIKULUA



1.- Zergaldia egutegiko urtea izango da, ibilgailua lehendabizikoz eskuratzen denean edo ibilgailuari baja ematen zaionean izan ezik. Izan ere horrelakoetan, zergaldia eskuraketaren egunean hasiko da edo ibilgailuari Trafiko Buruzagitzan baja ematen zaion egunean amaituko da, hurrenez hurren.

2.- Zergaldiaren lehen egunean sortuko da Zerga.

3.- Ibilgailuen lehen eskuraketa denean, kuotaren zenbatekoa kalkulatzeko hiruhilekoak kontuan hartu eta hainbatekoa aterako da, Trafiko Buruzagitzan ibilgailuari alta eman zaion egunari dagokion hiruhilekoa barne izanik.

4.- Ibilgailuei baja ematen zaienean, kuotaren zenbatekoa kalkulatzeko hiruhilekoak kontuan hartu eta hainbatekoa aterako da, Trafiko Buruzagitzan ibilgailuari baja eman zaion egunari dagokion hiruhilekoa barne izanik.

VIII. KUDEAKETA

8. ARTIKULUA

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den bizilekuko udalari dagokio zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, bai eta zerga kudeaketan agindutako egintzak berrikustea ere.

9. ARTIKULUA

Udalak zerga hau autolikidazio araubidean eskatu ahal izango du.

10. ARTIKULUA

Udal administrazioak emandako ordainagiria izango da Zerga ordaindu delako frogagiria.

11. ARTIKULUA

Urtealdi bakoitzeko lehen hiruhilekoan gauzatuko da zerga-ordainketa, ondorengo artikuluan azalduko diren kasuetan izan ezik. Horrelakoetan, artikulua horrek ezarritakoa bete beharko da.

12. ARTIKULUA

1.- Trafiko Buruzagitzari Ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasunaren ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenean, aldez aurretik, Zerga ordainduta dutela frogatu behar dute. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.

2.- Gauza bera egin beharko dute ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari ibilgailuaren eraldaketaren berri ematen diotenean, baldin eta eraldaketak zerga honen ondoretarako ibilgailuak duen kalifikazioa aldatu badu, bai eta ibilgailuaren zirkulazio baimena eskualdatzen bada edo bertan ageri den egoitza aldatzen bada ere.



3.- Trafiko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen bajei edo eskualdeketei buruzko espedienterik tramitatuko aldeztatik zerga hau ordainduta dagoela frogatzen ez bazaie., aurreko 1 idatz-zatian xedatutako kasuetan izan ezik.

13. ARTIKULUA

Matrikulazio berrietan, eta ibilgailuari egindako aldaketek zerga ondorioetarako kalifikazioa aldatzen dutenean, interesatuek ondoren adieraziko diren agiriak aurkeztu behar dizkiote udal administrazioari Zergaren matrikulari eransteko, 30 eguneko epean, matrikulatu denetik edo aldaketak egin zaizkionetik hasita:

- a) Zirkulazio baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria
- c) ENA edo IFK

IX. XEDAPEN GEHIGARRIAK

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Zergaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

X. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2009ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2010eko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.



ERANSKINA – 2010eko TARIFAK

POTENTZIA ETA IBILGAILU MOTAKUOTA

A) AUTOAK

- 8 zerga-zaldi baino gutxiago	23,40 €
- 8-11,99 tarteko ZZ	61,80 €
12-13,99 tarteko ZZ	130,00 €
-14-15,99 tarteko ZZ	133,40 €
-16-19,99 tarteko ZZ	181,40 €
-20 Zerga-zaldi eta gehiago	236,80 €

B) AUTOBUSAK

- 21 plaza baino gutxiago	158,00 €
- 21-50 plaza	226,00 €
- 50 plaza baino gehiago	281,40 €

C) KAMIOIAK

- 1000 kg-tik beherako zama erabilgarria	77,00 €
- 1000 - 2999 kg bitarteko zama erabilgarria	158,00 €
- 3000 - 9999 kg bitarteko zama erabilgarria	226,00 €
- 9999 kg-tik gorako zama erabilgarria	281,40 €

D) TRAKTOREAK

- 16 zerga-zaldi baino gutxiago	33,40 €
- 16 - 24,99 bitarteko zerga-zaldi	52,40 €
- 25 zerga-zaldi baino gehiago	158,00 €

E) TRAKZIO MEKANIKODUN ATOIAK ETA ERDIATOIAK

- 1000 kg-tik beherako zama erabilgarria	33,40 €
- 1000 - 2999 kg bitarteko zama erabilgarria	52,40 €
- 2999 kg-tik gorako zama erabilgarria	158,00 €

F) BESTE IBILGAILU BATZUK

- Ziklomotorrak	8,40 €
- 125 cc arteko motozikletak	8,40 €



- 125 cc baino gehiagotik 250 cc arteko motozikletak	14,40 €
- 250 cc baino gehiagotik 500 cc arteko motozikletak	29,00 €
- 500 cc baino gehiagotik 1000 cc arteko motozikletak	58,00 €
- 1000 cc-tik gorako motozikletak	115,60 €